# 0 Garapen Iraunkorra

## Desarrollo Sostenible



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia




## 0.1 NAZIOARTEKO IRAUNKORRA

Garapen iraunkorrari buruzko kontzeptua lehenengoz 1987ko agiri ofizial batean aipatu zen. Brundtland [2] Txostena iritzi zitzaion agiri ezagun honi, txostena Nazio Batuentzat egin zuen pertsonaren ohorez, Gro Harlem Brundtland [3] Norvegiako lehenengo ministro andrearen ohorez, hain zuzen ere.

Bertan garapen iraunkorra modu honetara definitzen da:
“ ... orainaren premiak asebetetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiek euren berrizanak asebetetzeko izan behar duten gaitasuna arriskuan jarri barik.”

Nazio Batuen eta Nazioarteko Natur Fondoaren ingurumen programak, 1991n, garapen iraunkorrari buruzko definizioa modu honetara osatu zuen:
"Garapen iraunkorrak bizi kalitatearen hobekuntza inplikatzen du, betiere ekosistemen mugen barruan."

Baina, zalantzarik gabe, Río de Janerioko gailurrean [4] (Nazio Batuek ingurumen eta garapenaren inguruan 1992an egindako biltzarra) garapen iraunkorraren ereduak jaso zuen ekonomi, gizarte eta ingurumen dimentsioa. Eta 2002an horrelaxe berretsi zen Johannesburgoko biltzarrean (Río +10).

Europako Batasunean garapen iraunkorrari buruzko hiru dimentsioko ikuspegi horri Lisboako Gailurrean ekin zitzaion 2000an. Hurrengo urratsa, 2001eko ekainean emandakoa, “Garapen Iraunkorrari buruzko EBren Estrategia” onetsi zen Gotenburgen egindako gailurrean.

Azpimarratzekoa da 2002an Europako Parlamentuak eta Kontseiluak **Ingurumen Ekintza 6. Programa** [5] onetsi zutela. Hauxe izan da garapen iraunkorraren estrategiaren ingurumen helburuak lortzen joateko lanabes nagusia.

Programak helburu garrantzitsuak ezartzen ditu, sarritan kuantifikatuta daudenak eta Europako Batasunak ingurumena babesteko dituen epe luzerako konpromisoak nabarmentzen dituztenak; horren ondorioz, agente publiko eta pribatuei marko ezagun bat ematen zaie Europan eta munduan.

## 0.1 CONTEXTO INTERNACIONAL

El concepto de Desarrollo Sostenible aparece formulado por primera vez en un documento oficial en 1987. Es el conocido como Informe Brundtland [2] (en honor a quien lo elaboró para las Naciones Unidas: la Primera Ministra noruega Gro Harlem Brundtland.) [3]

En él se define el Desarrollo Sostenible como:
" ... el desarrollo que satisface las necesidades del presente sin comprometer la capacidad de las generaciones futuras para satisfacer sus propias necesidades."

El programa de Medio Ambiente de las Naciones Unidas y Fondo Mundial de la Naturaleza, en 1991, completa la definición de Desarrollo Sostenible con:
"El Desarrollo Sostenible implica la mejora de la calidad de vida dentro de los límites de los ecosistemas."

Pero, sin duda, es durante la Cumbre de Río [4] (Conferencia de Naciones Unidas para Medio Ambiente y el Desarrollo- 1992) donde el modelo de Desarrollo Sostenible incluye una dimensión económica, una social y una ambiental. Quedando así ratificado en la Conferencia de Johannesburgo en 2002 (Río +10)

En la Unión Europea la visión tridimensional del Desarrollo Sostenible se inicia en la Cumbre de Lisboa en Marzo de 2000. El siguiente paso, en Junio de 2001, es la aprobación de la “Estrategia de Desarrollo Sostenible para la UE” en la Cumbre celebrada en Gotemburgo.

Cabe destacar que es en el 2002 cuando el Consejo y el Parlamento Europeo adoptaron el **6º Programa de Acción Ambiental** [5]. Este es el vehículo principal para la consecución de los objetivos Ambientales de la Estrategia de Desarrollo Sostenible.

El Programa establece objetivos ambiciosos, a menudo cuantificados, que enfatizan los compromisos a largo plazo de la Unión para la protección Ambiental y, en consecuencia, proporciona un marco predecible para los agentes públicos y privados en Europa y el resto del mundo.

[2] http://www.un.org/esa/sustdev/index.html
http://www.who.int/dg/brundtland/es/index.html

[3] biografía en http://www.who.int/dg/bruntland/en/

[4] http://www.un.org/documents/ga/conf151/aconf15126-1annex1.htm

[5] http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-5832/es/contenidos/publicaciones/sexto_programa/es_9722/adjuntos/sexto_programa.pdf




Testuinguru horretan adierazi behar da, 2005eko ekitaldiak erronka asko ekarri dizkiola Europako inguru menpolitikari, zeinen ezaugarriak, handi-handika esanda eta exhaustiboa izateko asmo barik, hiru gertaera nabarmen izan baitira:

- CO2 isurketen gaineko merkataritza-eskubideei buruz munduan denik eta planik handienari ekin zaio.
- Lurzorua babesteaz eta pestizidez denaz bezainbatean, aurrerapen pozgarriak lortu dira, eta espero da horren gainean neurriak hartuko direla 2006ren hasieran. Orobat, Kontseiluak eta Parlamentuak aurrerapen handiak egin dituzte REACH sistemaren gainean, hots: substantzia eta prestakin kimikoak erregistratu, ebaluatu eta baimentzen duen sistema, zein 2006an onartua izateko bidean baitago.
- EBak garapen jasangarrirako estrategia berrikusi izanak, epe luzera ekonomi, gizarte eta ingurumen joera berriei eta haien sinergiei aurre egiteko beste eremu bat ireki du. Horrenbestez, hazkunderako eta enplegurako Lisboako estrategia berritzeak eta estatu kideek programa nazionalak prestatzeak nabarmenarazi egin dute ingurumenak hazkunde, lehiakortasun eta enplegu arloetan duen garrantzia, hori guztia, munduan baliabide naturalak direla-eta dagoen presioa, petrolioaren prezioaren gorakada eta klimarekin loturik dauden hondamendiak ahaztu barik Europan.

En este contexto, señalar que el ejercicio 2005 ha sido un año de retos para la política medioambiental europea, caracterizándose, a grandes rasgos y sin ánimo de exhaustividad, por tres hechos destacados:

- Se ha dado comienzo al mayor plan de comercio de derechos de emisión CO2 del mundo.
- Se han logrado avances satisfactorios en lo relativo a protección del suelo y plaguicidas, esperando que se adopten medidas al respecto a principios de 2006. Asimismo, el Consejo y el Parlamento han logrado importantes progresos en cuanto al sistema REACH de registro, evaluación y autorización de sustancias y preparados químicos, que está en vías de ser adoptado en 2006.
- La revisión de la estrategia de la UE para el desarrollo sostenible ha aportado un nuevo marco para afrontar las nuevas tendencias económicas, sociales y medioambientales a largo plazo y sus sinergias. Así, la renovación de la estrategia de Lisboa para el crecimiento y el empleo y la elaboración de programas nacionales de reformas por parte de los Estados miembros ha subrayado la importancia del medio ambiente para el crecimiento, la competitividad y el empleo, todo ello con el telón de fondo de la presión mundial sobre los recursos naturales, el aumento de los precios del petróleo y las catástrofes relacionadas con el clima en Europa.





## 0.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GARAPEN IRAUNKORRA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrak (3/1998 Legea [6]) helburu modura garapen iraunkorra ezarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eremuan garatu beharreko ingurumen politika guztietan.

Lege honek ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen politika lau urteko iraupena duen ingurumen marko programa batean (PMA 2002-2006 [7]) islatzen dela. Lege honek beharrezkotzat jotzen du ingurumen politikaren antolamendu egonkor eta iraunkorra, ekintza publikoari eta ekimen pribatuari bermea, segurtasuna eta eraginkortasuna emateko. Arrazoi hori dela eta, Garapen Iraunkorraren Ingururumeneko Euskal Estretegia sortu da (2002-2020) [8].

Ingurumenari buruzko "EAEko Ingurumena 2001ean. Diagnostikoa." [9] azterlanean administrazioari exijitzen zaio gidaritza zeregina bere gain hartzea; horrela, administrazioaren trakzio-eginkizuna funtsezkoa izango da eta ezinbestekoa izango da programa eta egitasmo guztietan ingurumenaren aldaera sartzea, diseinuaren hastapenetatik bertatik. Administraziori lan berria dagokio osagai motibatzaile, sentsibilizatzaile eta eragile modura.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak 2005ean "Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Ingurumen Adierazleen Txostena [10]" aurkeztu du –laugarrena jarraian–. Dokumentu horrek, "Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategia, 2002-2020"n hartutako konpromisoari erantzuten dio. Konpromisoa da, funtsezko adierazle gutxi batzuekin urtero txosten bat prestatzea ingurumenak izan duen bilakaera erakusteko eta, halaber, bertan aipatu Estrategian ezarritako lehentasunezko helburuekin horrek duen erlazioa ikusteko.

Esan ahal da, txosten horretan adierazten dela norabide egokian lan egiten ari dela baina oraindik bide asko geratzen dela ibilkizun, testuingurua baita: geure ahaleginarekin irabazten duguna geure bizitze, kontsumitze eta garatze moduarekin galtzen dugula. Ildo horretan, nahiz eta gero eta gehiago birziklatzen dugun, ber denboran hondakin gehiago sorrarazten ditugu; mugikortasun jasangarrirako planak prestatzeari ekin zaio, baina automobila eta kamioia dira oraindik gure garraio-bitarteko nagusiak; natur baliabideak modu eragingarriagoan erabiltzen ditugu (materialak, lurzorua eta energia), baina gehiago kontsumitzen ditugu.

## 0.2 DESARROLLO SOSTENIBLE EN EL PAÍS VASCO

La Ley General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco (Ley 3/1998 [6]) fijó como objetivo el Desarrollo Sostenible para toda la política ambiental que se desarrolle en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Esta Ley establece que la política ambiental del País Vasco se plasma en un Programa Marco Ambiental, con una duración de cuatro años- (PMA 2002-2006 [7]). Esta misma ley considera necesario propiciar la creación de una ordenación estable y duradera de la política ambiental que dote de garantía , seguridad y eficacia a la acción pública y a la iniciativa privada. Por esta razón surge la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible (2002-2020) [8].

En el diagnóstico del sistema Ambiental de al CAPV "Medio Ambiente en la CAPV 2001. Diagnóstico." [9] se exige de la Administración que asuma un papel de liderazgo, es fundamental su papel tractor, siendo necesario que todos sus planes y programas integren la variable ambiental desde los inicios de su diseño. A la Administración le corresponde un nuevo papel como elemento motivador, sensibilizador y ejemplarizante de la sociedad.

El Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco ha presentando en 2005, por cuarto año consecutivo, el Informe de Indicadores Ambientales [11] de la Comunidad Autónoma del País Vasco, documento que da respuesta al compromiso adquirido en la "Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 " de elaborar un informe anual que con un número reducido de indicadores clave muestre la evolución global del medio ambiente y su relación con los objetivos prioritarios establecidos en dicha Estrategia.

Cabe señalar que en el citado informe se señala que se está trabajando en la dirección correcta pero que aún queda mucho camino por recorrer, en un contexto en el que lo que ganamos con nuestro esfuerzo los perdemos con nuestro modo de vida, de consumo y de desarrollo. En este sentido, a pesar de que cada vez reciclamos en mayor medida, generamos más residuos; comienzan a elaborarse planes de movilidad sostenible pero el coche y el camión continúan siendo nuestros principales medios de transporte; y utilizamos de manera más eficiente los recursos naturales (materiales, suelo y energía) aunque los consumimos en mayores cantidades.

[6] http://www.euskadi.net/bopv2/datos/1998/03/9801344a.pdf
[7] http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-5832/es/contenidos/plan_programa_proyecto/eavds_pma/es_9688/adjuntos/pma0206.pdf
[8] http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-5832/es/contenidos/plan_programa_proyecto/eavds_pma/es_9688/adjuntos/folleto_eavds.pdf
[9] http://www.ingurumena.net/Castellano/Doc/Otros/D_0003.htm
[10] http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-5832/eu/contenidos/plan_programa_proyecto/eavds_pma/eu_9688/adjuntos/2006.pdf
[11] http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-5832/es/contenidos/plan_programa_proyecto/eavds_pma/es_9688/adjuntos/2006.pdf





## 0.3 BIZKAIKO EGOERA

1998ko ekainaren 2an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak erakunde adierazpen bat onetsi zuen, nazioarteko komunitateari zuzendutako proposamen bat txertatzen zuena ingurumen giza eskubide berri modura aintzatetsia izan zedin; proposamen horri "Bizkaiko Adierazpena" [12] izena eman zitzaioan.

Horren edukia Batzar Nagusietan berretsi zen 1998ko ekainaren 30ean, eta horren ostean, Bizkaiko udal askotako osoko bilkuretan ere.

Hainbat hizkuntzatan adierazpen honi buruzko argibide gaurkotuak izateko eta urteetan barrena izan duen ibilbidea eta jaso dituen atxikimenduak ikusteko, Interneteko helbide honetara baino ez da jo behar:

http://www.gurelurra. net/default.htm

Hain zuzen ere, 2002ko otsailaren 11n Bizkaiko Foru Aldundiak, Ingurumen Sailaren bitartez, jendaurrean jakinarazi zuen Hanoover-eko Deialdia sostengatzen zuela, eta Lurralde Historikoko Udalei hura berrestera dei egin zien.

Bizkaiko udalerri ugarik onetsi zuten, zeinek bere gobernu-organoaren bidez, Hanoover-eko agiria, eta, halaber, Aalborgeko Agiriaren (1994ko maiatzaren 27a) eta Lisboako Adierazpenaren (1996ko urriaren 8a) edukieiatxiki zitzaizkien. Berriki Aalborg+10 adierazpena "etorkizunerako iradokipena" ere izenpetu da (2004), bertan jasotzen diren ekintzarako 10 Konpromisoak bereganatuz.

Orobat, Bizkaia dagoeneko atxiki zaio Europako Adierazle Erkideen Egitasmoari [13] (ECI-Project), zeinek, aurreko atalean adierazi bezala, udalerriek, bakarka zein sareetan taldekatuta, ingurumen, ekonomi eta gizarte jiteko toki-alderdiak elkarrekin erlazionatzen dituzten hamar adierazle zenbatu ditzaten proposatzen duen, halako eraz ezen, udal errealitatea ikuspegi integratu batetik neurtua eta aztertua izan dadin. Ildo horretan, Bizkaiko udalerririk gehienak erantsi zaizkio aitzindaritzat Euro-pako Batzordearen Ingurugiroko Zuzendaritza Nagusia duen ekimen honi eta gogor lan egin dute "Bizkaiko Udalerrien Jasangarritasun Adierazleen Sistema" definitzen eta hautatzen. Hain zuzen ere, sistema hori udalerriek eurek eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Ingurumen Sailaren bitartez, definitu dute elkar hartuta.

## 0.3 LA SITUACIÓN EN BIZKAIA

El 2 de junio de 1.998, el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia aprobó una Declaración Institucional que incluía una propuesta dirigida a la comunidad internacional en orden al reconocimiento del Medio Ambiente como nuevo Derecho Humano, la conocida como la Declaración de Bizkaia [12]

Su contenido fue respaldado, el 30 de junio de 1.998, por las Juntas Generales y, seguidamente, por los plenos municipales de una gran mayoría de los ayuntamientos de Bizkaia.

Para tener información actualizada, en distintos idiomas, sobre esta Declaración, ver su trayectoria a lo largo del tiempo y las adhesiones que ha recibido, solo hay que acudir a la dirección de Internet:

http://www.gurelurra. net/default.htm .

El 11 de febrero de 2002 la Diputación Foral de Bizkaia, a través del Departamento de Medio Ambiente, proclamó públicamente su apoyo al Llamamiento de Hannover e invitó a los Ayuntamientos del Territorio Histórico a refrendarlo.

Numerosos municipios de Bizkaia aprobaron en sus diferentes órganos de gobierno el documento de Hannover y también secundaron los contenidos de la Carta de Aalborg (27 de mayo de 1994) y la Declaración de Lisboa (8 de octubre de 1996). Recientemente, también se ha suscrito la declaración de Aalborg+10 "inspiración para el futuro" (2004), asumiendo los 10 Compromisos para la acción que contiene.

Asimismo, Bizkaia se ha sumado al Proyecto de Indicadores de Sostenibilidad [14] Comunes Europeos (ECI-Project) que, como ya se apuntaba en el apartado europeo, propone que los municipios, por sí solos o agrupados en redes, cuantifiquen un total de diez indicadores que relacionan entre sí aspectos locales de naturaleza ambiental, económica y social, de manera que la realidad municipal sea medida y analizada desde una perspectiva integrada. En este sentido, la gran mayoría de los municipios de Bizkaia se han sumado a esta iniciativa liderada por la Dirección General de Medio Ambiente de la Comisión Europea y han trabajado, de forma intensa, en la definición y selección del "Sistema de Indicadores de Sostenibilidad de los Municipios de Bizkaia", que ha sido definido de forma conjunta entre los propios municipios y la Diputación Foral de Bizkaia, a través del Departamento de Medio Ambiente.





Egin den adierazle horien azterketa laburbilduz adierazi behar da, Bizkaiak gaur egun, oro har, egoera ona daukala mugikortasun-ohiturei, pertsonen hiri-parkeetarako eta oinarrizko zerbitzuetarako ailegaerraztasunari, eskola-garraio moduaren banaketari eta tokiko enpresen kudeaketa jasangarriari dagokienez; baina, oraindik nahikoa aurreratu behar da beste arlo batzuetan: herriek klima-aldaketarako egiten duten ekarpena (CO2 emisioak); zarata-kutsadura; lurraren erabilera jasangarria, eta jasangarritasuna sustatzen duten produktuen kontsumoa.

Resumiendo el análisis de esos indicadores, señalar que en líneas generales Bizkaia mantiene actualmente una situación adecuada en términos de sostenibilidad en lo que respecta a hábitos de movilidad, accesibilidad de las personas a los parques urbanos y servicios básicos, distribución modal del transporte escolar, y gestión sostenible de las empresas locales; mientras que aún debe avanzar considerablemente con relación a la contribución local al cambio climático (emisiones de CO2), contaminación sonora, uso sostenible de la tierra, y consumo de productos que fomentan la sostenibilidad.

[12] http://www.gurelurra.net/espanol/declar.html

[13] http://www.bizkaia.net/Ingurugiroa_Lurraldea/Jasangarritasuna/eu_index.htm

[14] http://www.bizkaia.net/Ingurugiroa_Lurraldea/Jasangarritasuna/ca_index.htm





## 0.3.1. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ESTRATEGIA GARAPEN JASANGARRIRAKO: BIZKAIA 21 PROGRAMA [15]

Bizkaia 21 Programa Bizkaiko Foru Aldundiak, Garapen Jasangarrirako Lurralde Gobernuen Sareak (NRG4SD) gobernu-maila guztietan Garapen Jasangarriaren alde lan egitera egindako deiari erantzuteko sortu da.

Ildo horretan, Bizkaia 21 Programak Euskal Herriaren jasangarritasunarekiko konpromisoa errealitate bihurtzen eta, Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiaren aburuz jasangarritasunerantz joateko behar diren baldintzak betetzen laguntzen du. Orobat, Garapen Jasangarrirako Europar Estrategiak eta Ingurumenaren aldeko Ekintza Komunitariorako VI. Programak planteatutako erronka nagusiak alde zehatzetan landu asmo du.

Zehazki, Bizkaia 21 Programak erdietsi nahi dituen xedeak hurrengo hauek dira:

- Foru-jarduketari eta garapen jasangarriari buruzko askoren arteko gogoeta egiten lagunduko duen lehenengo abiapuntua ezartzea.
- Foru-jarduketan jasangarritasun-printzipioak eransteko ildo estrategikoak markatzea.
- Jasangarritasun-helburu espezifikoak definitzea foru-sail guztientzat, bai halaber dagozkien kudeaketaadierazleak,hartutako konpromisoen jarraipena egin ahal izateko.
- Diziplina arteko jarduketa bat sustatzea, Lurraldearen garapen jasangarrian eragin handia duten esparruak koordinatzeko helburuarekin.
- Parte hartzearen kultura sustatzea Foru-administrazioaren barruan, sektore bakoitzean egiten diren politiketan jasangarritasun-printzipioekin iragazkorra izango den antolaketa-sistema baten bitartez.

## 0.3.1. ESTRATEGIA DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE: PROGRAMA BIZKAIA 21 [16]

El Programa Bizkaia 21 surge como respuesta de la Diputación Foral de Bizkaia a la invitación de la Red de Gobiernos Regionales para el Desarrollo Sostenible (NRG4SD) para trabajar a favor del Desarrollo Sostenible a todos los niveles de gobierno.

En este sentido, el Programa Bizkaia 21 contribuye a hacer realidad el compromiso por la sostenibilidad del País Vasco y las condiciones que según la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible son necesarias para avanzar hacia la sostenibilidad. Asimismo, pretende trabajar en lo concreto los grandes retos planteados por la Estrategia Europea de Desarrollo Sostenible y el VI Programa de Acción Comunitario en Medio Ambiente.

Concretamente, los fines que persigue el Programa Bizkaia 21 son los siguientes:

- Establecer un primer elemento que contribuya a la reflexión colegiada en torno a la actuación foral y el desarrollo sostenible.
- Marcar las líneas estratégicas para la incorporación de principios de sostenibilidad en la actuación foral.
- Definir objetivos específicos de sostenibilidad para todos los Departamentos Forales, acompañados de los correspondientes indicadores de gestión, que permitan hacer un seguimiento de los compromisos adquiridos.
- Promover una actuación administrativa interdisciplinar orientada a la coordinación en ámbitos con gran repercusión sobre el desarrollo sostenible del territorio.
- Apoyar la cultura participativa dentro de la administración foral, a través de un sistema organizativo que sea permeable a los principios de sostenibilidad en las distintas políticas sectoriales.

[15] http://www.bizkaia.net/Home2/Archivos/DPTO9/Temas/Pdf/BIZKAIA%2021%20Egitasmoa.pdf

[16] http://www.bizkaia.net/Home2/Archivos/DPTO9/Temas/Pdf/Programa%20BIZKAIA%2021.pdf

# 1 Lan eta Trebakuntza Nahiz Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila Aurkezpena

## Presentación de los departamentos de empleo y formación e innovación y promoción económica



BFA DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

## 1. LAN ETA TREBAKUNTZA NAHIZ BERRIKUNTZA ETA EKONOMI SUSTAPEN SAILA AURKEZPENA

Ahaldun Nagusiaren uztailaren 22ko 305/1999 Foru Dekretuak, Foru Aldundiak 1999ko uztailaren 23an egindako bileran berretsia, Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailen kopurua eta izendapena zehazten ditu; horrela, lehendabiziko artikulatuan, 2. idatz-zatian ondoko hauxe ezartzen du:

"Lan eta Trebakuntza Saila [17] sortzen da, Lan eta Ekonomi Sustapen Sailari lan eta prestakuntzaren inguruan emandako eskumenak jasoz eta azken sail honi Ekonomi Sustapen Sailaren izena emanez."

Gaur egun Lan eta Trebakuntza Sailean garatzen ditugun jarduerak azaroaren 25eko 224/2003 Foru Dekretuan [18] jasotakoak dira:

- Bizkaian lana sustatzea.
- Lanaren egonkortasun eta kalitatea sustatzea.
- Kolektibo ahuletan lana sustatzea.
- Bizkaiko langabetuak gizarteratu eta laneratzeari begira zuzendutako prestakuntza.
- Bizkaiko langileen gaitasunak eta potentzialtasunak hobetzea.
- Kaltetuetako kolektiboetako pertsonei zuzendutako prestakuntza.
- Bizkaian prestakuntza eta enpleguaren eremuan lan egiten duten beste administrazio eta gizarte agenteekin koordinatzea eta elkarrizketatzea.
- Enplegua sortzen laguntzen duten industri azpiegiturak garatzea.

## 1. PRESENTACIÓN DE LOS DEPARTAMENTOS DE EMPLEO Y FORMACIÓN E INNOVACIÓN Y PROMOCIÓN ECONÓMICA

El Decreto Foral número 305/1999, de 22 de julio, del Diputado General, convalidado por la Diputación Foral en reunión celebrada el 23 de julio de 1999, determina el número y denominación de los Departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia, disponiendo en su articulado primero, punto 2, lo siguiente:

"Se crea el Departamento de Empleo y Formación [17] asumiendo las competencias de empleo y formación hasta la fecha atribuidas al Departamento de Promoción Económica y Empleo, pasando a denominarse este último Departamento de Promoción Económica."

Las actividades que actualmente desarrollamos en el Departamento de Empleo y Formación son las que están recogidas en el Decreto Foral Nº 224/2003, de 25 de noviembre [18]:

- Promoción del empleo en Bizkaia.
- Fomento de la estabilidad y de la calidad del empleo.
- Fomento del empleo para colectivos vulnerables.
- Formación dirigida a la inserción socio laboral de desempleados de Bizkaia.
- Mejora de las capacidades y potencialidades de los trabajadores de Bizkaia.
- Formación de las personas pertenecientes a colectivos desfavorecidos.
- Interlocución y coordinación con otras Administraciones y agentes sociales que trabajen en Bizkaia en el campo de la formación y empleo.
- Desarrollo de infraestructuras industriales que contribuyan a la creación de empleo.

[17] http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleDepartamento.asp?Tem_Codigo=12

[18] http://www.bizkaia.net/lehendakaritza/Bao_bob/2003/11/20031126a227.pdf#page=5

# 1. Lan eta Trebakuntza Nahiz Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila Aurkezpena.

# 1. Presentación de los Departamentos de Empleo y Formación e Innovación y Promoción Económica

Aurreko Ekonomi Sustapen Sailaren zereginak hartu zituen Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren sorrera [19] uztailaren 2ko 270/2003 Foru Dekretuaren [20] lehenengo artikuluaren hamahirugarren puntuan jasota dago.

Sail honen jarduerak ondoko hauexek dira:

- Bizkaiko enpresa txikien lehiakortasuna hobetzen duten jarduketa planak garatzea, etengabeko hobekuntzan oinarrituriko kudeaketaren bikaintasun irizpideen arabe-ra.
- Enpresa ekimen berriak aztertzea.
- Enpresa txikietan gidaritza kontzeptua bultzatzea.
- Enpresa txikietan enpresa estrategia egokia garatzea.
- PYMEekin teknologien egoerari eta aurrerapenei buruz-ko informazio bideak koordinatzea eta sustatzea.
- Administrazio kudeaketa optimizatzeari begirako ekint-zak burutzea, antolaketa sistemak ezarriz eta horiei jarraituz.
- Enpresei informatzeko politika aurrera ematea eta kan-potik datorren informazioa bideratzea eta koordinatzea.

La creación del Departamento de Innovación y Promoción Económica [19] asumiendo las funciones del anterior Departamento de Promoción Económica se recoge en el Decreto Foral Nº 270/2003 [20], de 2 de julio en su articulado primero punto trece.

Las actividades de este Departamento son las de:

- Desarrollar planes de actuación que faciliten la mejora de la competitividad de las pequeñas empresas de Bizkaia de acuerdo a criterios de excelencia en la gestión basados en la mejora continua.
- Estudiar nuevas iniciativas empresariales.
- Impulsar el concepto de liderazgo en las pequeñas empresas.
- Desarrollar una estrategia empresarial adecuada en las pequeñas empresas.
- Coordinar y promover los cauces de información a las PYMES sobre el estado y avance de las tecnologías.
- Ejecutar acciones encaminadas a la optimización de la gestión administrativa, mediante establecimiento y seguimiento de sistemas de organización.
- Realizar la política de información hacia las empresas y canalizar y coordinar la información procedente del exterior

[19] http://www.berrikuntza.bizkaia.net

[20] http://www.bizkaia.net/lehendakaritza/Bao_bob/2003/07/20030702x125.pdf#page=3

# 1. Lan eta Trebakuntza Nahiz Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila Aurkezpena.

# 1. Presentación de los Departamentos de Empleo y Formación e Innovación y Promoción Económica

Lan eta Trebakuntza Sailak eta Berrikuntza Ekonomi Sustapen Sailak gure jarduerak garatzen ditugu, instalazioak elkarbanatuz, Bilboko Obispo Orueta kaleko 6. zenbakian eta Ercilla kaleko 6. zenbakiko beheko solairuan kokaturiko bi eraikinetan. Gainera, 120 pertsonako langile zerrenda bat daukagu behargin finkoak eta behin-behinekoak zenbatuz.

Tanto el Departamento de Empleo y Formación como el de Innovación y Promoción Económica desarrollamos nuestras actividades, compartiendo instalaciones, en dos edificios ubicados en Obispo Orueta 6 y Ercilla 6 bajo en Bilbao. Y contamos con una plantilla de casi 120 personas entre personal fijo y eventual.




Foto // Argazkia: Obispo Urueta kalean dagoen erikina // Edificio ubicado en Obispo Urueta

2

# Ingurumen Politika
## Política Ambiental



BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia





## 2. INGURUMEN POLITIKA [21]

2005. urtean, aurreko urtean eguneratutako Ingurumen Politikarekin jarraitzen dugu. Ulergarriagoa eta hedatzeko errazagoa izatea zen helburua, eta horretarako laburbildu egin genuen, printzipioak zenbatu eta horietako bakoitza goiburu labur baten bidez zehaztuta. Gure jarduerarekiko Ingurumen Politika egokia izaten jarraitzen duelakoan gaude.

### Ingurumen politika

Enplegu eta Trebakuntzako eta Berrikuntzako eta Ekonomi Sustapeneko zuzendari nagusiok, gure sailen jardueren bitartez, Bizkaiko Lurralde Historikoan enplegu egonkorra sortzen, langileen gaitasun eta ahalmenak hobetzen eta aberastasuna sortzen laguntzen dugu.

Biztanleen aurrean trakzio-eragile eta eredu garen heinean, jabetzen gara gizartearekiko dugun erantzukizunaz. Hori dela eta, sail horietako gainerako langileekin batera, ingurumen politika hau zehaztu dugu, gure ingurua etengabe eta modu iraunkorrean hobetzen lagunduko digun sistemaren jarduketa eremua definituko duena.

**Gure INGURUMEN POLITIKAREN oinarriak honako hauek dira:**

1. **KUTSADURAREN PREBENTZIOA:**

   Ingurumena errespetatu eta kontserbatzea, gure jarduerak garatzeko nahitaezko elementu delako, eta, ahal den une eta tokian, kutsadurari aurrea hartzeko printzipioak aplikatzen ditugu.

2. **ETENGABEKO HOBEKUNTZA:**

   Urtero garatzen ditugun ingurumen programei esker ingurumenaren babesa etengabe hobetzen doa.

3. **INGURUMENARI BURUZKO LEGERIA BETETZEA:**

   Foru Aldundiak hartutako legezko betekizunak eta beste edozein konpromisu bete beharreko gutxienekotzat jotzen ditugu eta ingurmenaren babes-maila handiagoa lortzea dugu helburu.

## 2. POLÍTICA AMBIENTAL [21]

En el año 2005, continuamos con la Política Ambiental que habíamos actualizado el año anterior. Con el fin de facilitar tanto la comprensión como su despliegue posterior, la sintetizamos, enumerando sus principios y concretando cada uno de estos en un breve título. Consideramos que la Política Ambiental sigue siendo adecuada a nuestras actividades.

### Política ambiental

Los Directores de Empleo y Formación e Innovación y Promoción Económica, a través de las actividades de nuestros Departamentos, tratamos de contribuir a la creación de empleo estable, la mejora de las capacidades y potencialidades de los trabajadores y trabajadoras y la generación de riqueza en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Conscientes de nuestra responsabilidad social como agentes tractores y ejemplo ante la sociedad, hemos establecido, junto con el personal de ambos Departamentos, esta política medioambiental orientada a definir el marco de actuación de un sistema que nos lleve a una mejora continua y constante con el entorno que nos rodea.

**Los principios de NUESTRA POLÍTICA MEDIOAMBIENTAL son los siguientes:**

1. **PREVENCION DE LA CONTAMINACION:**

   Promovemos el respeto y la conservación del medio ambiente como elemento imprescindible en el desarrollo de nuestras actividades, y aplicamos los principios de prevención de la contaminación, cuando y donde es posible.

2. **MEJORA CONTINUA:**

   Los programas medioambientales que anualmente elaboramos hacen posible la mejora continua de la protección medioambiental.

3. **CUMPLIMIENTO DE LA LEGISLACION MEDIOAMBIENTAL:**

   Entendemos los requisitos legales y cualquier otro compromiso que suscriba la Diputación como el conjunto de mínimos a cumplir y aspiramos a un mayor grado de protección ambiental.

[21] http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=958&Idioma=CA
http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=1892&Idioma=CA

http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=958&Idioma=EU
http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=1892&Idioma=EU

# 2. Ingurumen Politika.
# 2. Política Ambiental.





4. **LANGILERIA TREBATU ETA SENTSIBILIZATU:**

   Langile guztiak kontzientziatzen ditugu ingurumenarekiko duten erantzukizunaz, ingurumena kudeatzeko prestakuntza eta sentsibilizazio programak erabiliz.

5. **LAN TRAKTOREA:**

   Gurekin harremanak dituzten taldeek ingurua babesteko gure ahaleginekin bat egin dezaten nahi dugu.

6. **KOMUNIKAZIOA ETA ZABALTZEA:**

   Langile guztiei, geureei zein kontratatuei, eta gizarte osoari sailek hartutako konpromisoen berri ematen diegu eta pertsona guztien parte hartzea ezinbestekoa dela azpimarratzen dugu; horrela, ingurumen osasuntsuagoa eta ekologikoki orekatuagoa lortuko dugu.

4. **FORMACION Y SENSIBILIZACION DEL PERSONAL:**

   Concienciamos a todo el personal sobre su responsabilidad para con el medio ambiente, mediante programas de formación y sensibilización en materia de gestión medioambiental.

5. **LABOR TRACTORA:**

   Tratamos de incorporar progresivamente a los grupos con los que nos relacionamos a nuestros esfuerzos por mejorar la protección del entorno.

6. **COMUNICACIÓN Y DIFUSION:**

   Comunicamos a todo el personal, tanto propio como contratado, y al resto de la sociedad los compromisos adquiridos por los Departamentos, los objetivos y metas alcanzadas, y les transmitimos la importancia de la participación de todas las personas para conseguir un medio ambiente sano y ecológicamente equilibrado.

| | | |
|---|---|---|
| Enplegu eta Trebakuntzako Zuzendari Nagusia. | Enplegurako Azpiegitura eta Egitarauen Zuzendari Nagusia. | Berrikuntzako eta Ekonomi Sustapeneko Zuzendari Nagusia. |
| Director General de Empleo y Formación. | Director General de Infraestructuras y Programas para Empleo. | Director General de Innovación y Promoción Económica. |
| ANTON LOROÑO DUDAGOITIA | GAIZKA GABANTXO ZABALA | GAIZKA ZULAIKA ATORRASAGASTI |

Bilbon, 2005ko maiatzaren 18an

En Bilbao a 18 de mayo de 2005